

Bidebieta



Gizarte laguntzarako gunea

Hilabete luzez aldamiuez inguratuta izan dugu Moneda baserria. Kanpotik begiratuta, ez dirudi gehiegi aldatu denik, baina barrutik aldaketa erabatekoa izan da. Izan ere, Kutxa Gizarte Ekintzak gizarte laguntzarako trebakuntza gune bilakatu du eraikina. Egun, baserriak eskolak emateko hiru gela ditu, praktikak egiteko tailer bat, informatika gela, gimnasio moduko areto bat eta liburutegia.

Hiru ikastaro mota egingo dituzte Monedan. Batetik, adinduen zaintzaile izateko ikastaroak daude. Ikastaro hau hasita dago, goiz eta arratsaldez ematen dituzte eskolak eta otsailean bukatuko da. Ondoren, beste bi ikastaroak hasiko dira, berriro ere goiz eta arratsaldez, eta uztailean amaituko dira.

Beste bi ikastaroak zaharrrak zaintzen dituzten langileei eta etxean adinduren bat duen orori zuzenduta daude, hurrenez hurren. Profesionalentzat eta etxean adinduren bat dutenentzat antolatutako ikastarook astebeteko edo bi asteko iraupena izango dute.

Garai berria Monedarentzat

Nekazaritza eta abeltzaintzarako, aurrezki kutxa gisa... Erabilpen ugari izan ditu Moneda baserriak, XVI. mendean eraiki zutenetik. Gaur egun, gizarte laguntzarako gunea da.

Altzako Historia Mintegiko lagunek azaldu digutenez, gaskoi jatorriko Oa familia donostiarrak eraiki

zuen Moneda baserria, XVI. mendean. Dena dela, egungo baserriak ez du zerikusirik Oatarrerak eraiki zutenarekin. Izan ere, Jose Goikoa arkitekto donostiarrak XIX. mendean erabat zaharberitu zuen eraikina.

Eraiki zutenetik duela urte gutxi arte, abeltzaintza eta nekazaritza jarduerak egin dituzte baserrian. XX. mende erdialdean, adibidez, trintxerpear asko Moneda baserrira joan ohi ziren esnea erostera,

eta bertako baserritarrek, asto batek gidatutako gurdian, baratzako produktuak eraman zituzten Trintxerpera. 70eko hamarkada hasieran, berriz, Kutxak bere gain hartu zuen baserria, eta orduz geroztik, oso bestelako jarduerak izan ditu; aurrezki kutxa gisa erabili da, esaterako. Kutxaren artxibo orokorra ere baserrian izan zen zenbait urtez, eta azken urteetan auzoko emakumeen elkarteak ekimenak egin ditu bertan.

